

IKASTOLAZ IKASTOLA IBILITAKO MAISTRA

Julene Azpeitia -emakume behargina, euskaltzale eta euskarazko irakaskuntzan aintzindaria Zumaian jaio zen, 1888ko Urtarrilaren 8an, eta 92 urte beranduago, 1980ko Otsailaren 5ean, Bilbon hil zen.

Haren bizitza luzea bi hitzetan laburtu behar izango bagenu, *Umeak eta Euskara* aipatuko genituzke, bi arlo horiek izan bait ziren Juleneren bizitzako motor eta ardatz.

Donostia eta Bilboko Magistergo-Eskoletan ikasi ondoren, hemeretzi urte zituela Aizarnazabalgo eskolan aritu zen, maistra, Zumaiaetik astelehenero oinez joaten zela. Apendizitis gaizto batek hiltzorian eduki zuen; eta Pedro Diaz Carredanok sendatu eta gero, alde egiteko erabakia hartu zuen. Haren hitzetan esateko, *ez nuan geiago Aizarnazabalera juan nai izan. Orrelako erritxoetan gaxotzen diranak galduak daudelako.*



Julene Azpeitia (1888-1980). Bizitza luzea izan zuen: Zumaian jaio zen, eta Bilbon hil.



2

1911n Valladolid-eko oposaketetan lehenen geratu zen, eta, handik etorrita, Bizkaiko ikastoletan irakasten jardun zuen, 1916an Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen artean. Senarrarekin batera Mexikora joanik, 1918an euskaraz idazteari ekin zion, bai eta argitaratzeari ere, Mexikoko euskaldunek urtean behin Ignazio Deunaren egunean ateratzen zuten "magazine"an. Lau urtez bizi izan zen itsasoaz bestaldean, eta, Euskal Herrira itzulita, berriz ekin zion ikastoletan irakasteari. Haurren mundua eta euskara izan ziren, berriz ere, Juleneren grina eta seta.

Gerraren ondoren zigorra: *amaika urte ikastola gabe, urtebete Bizkayko Gorlizen Ume gaixotegiko ikastolan; sei urte Burgosko herri txiki batean (Mena haranean) eta azkenengo ikastola Markiñan izan det. Orain Durangon bizi naiz nere senarrarekin,* zioen 1961ean, Norbert Tauer-i idatzitako gutun batean. Eta Durangon bertan eman zituen urte gehienak, beti ere irakaskuntzaren munduan, erretiroa hartu arte.



Markos Azpeitia eta Martina Gómez, Julene-ren gurasoak.
Hizkuntza, belaunaldiek elkarri egiten dioten dohaina bezala ikusi zuen Julenek.

EUSKALTZALE SUTSUA

Jainkoarekiko sinesmen sakonarekin batera, familiarekiko maitasuna, euskararenganako fedea eta adorea ditugu Julene Azpeitiaren idazki, solasaldi eta gutun guztietan mezurik zainduenak. Era berean, sentimendu sakonen artean zuen erlijiotasuna, bai eta famili zentzua ere. Eta hauekin batera, hizkuntza eta aberria.

Mexikon hasi zen mintzatzen aberri-minaz, eta beranduago Burgosen, "zigorturik" igaro zituen sei urte luzeetan. Euskara dugu hainbat gauza egitera bultzatu zuen arrazoi eta zergati bakarra. Jarrera intelektuala izatetik urrun, momentuoro zuen presente hizkuntzaren egoera, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrean irakurritako txostenak frogatzen duenez. Bertan, euskararen hileta-joleak gaitzetsi ondoren (Juan Gallastegi abadeak irakurririk), *hizkuntzaren berjaiotzerako* lau proposamen aurkeztu zituen, ipuin, eskola eta irratsaioen bidez euskara hedatzea helburutzat hartuta.

Beste edozerk baino hobeto, 1962an Euskaltzaindiaren Sariketara aurkeztu zuen ipuinaren lemak azaltzen digu jarrera hori: *Euzkera jasotzea erabagi dogu*. Hitz batez, erabaki honek baldintzatu zuen haren bizitza osoa, Tauer-i idatzi zion gutunean ikus dezakegunez. Euskaltzale honen eskaerari erantzunez, Julene Azpeitiak honela hasi zuen bere buruarekiko deskribapena: *Zumayan jaioa naiz, irakaslea; euskeraren maitetasuna betikoa det nere biotzean, geroago ta aundiagoa...*

Aita bertsozalearengandik jasotako euskararekiko amodioa, semearengan ez-ezik, gainerako umeengan ere erein eta sendotu nahi izan zuen: *eta zuri, ene semea, nere gurasoak neri egin ziraten, eta nik zuri egin dizutan bezela, zuk ere, zeure umeeri, euskeraz itz egitea eskatzen dizut biotz-biotzez, agertzen zaigu haren liburu ezagunaren eskaintzan, Amandriaren altzoan ipuin labur eta ugariz josiriko idazlanean. Liburu honetan (Azpeitiaren ospetsuena*

bestalde) emakume errealista, zuzena ageri da, batzutan mingotsa, inoiz umoretsua, eta hainbestetan gauzei

aurreratzeko ahalmenaz, azaltzen zaigu. Emakume pragmatiko eta positiboa zen Julene.

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak, Emakumearen Nazioarteko Urtea dela-ta, "Emakumea euskal literaturan" gaia ikutuaz. Emakume idazleak ez-ezik, gizonezko idazleak bultzatu dituzten emakumeak eta sukaldeetan hurrei euskara irakasten dien etxeakoandreak ere gogoan ditu. Azkenik, gaur omenaldiz batzar ideki hau eskaintzen zaien hiru emakumezkoak eta euskararen arloan hauek egin duten lan eredugarria aurkezten ditu.

Ondorean Julene Azpeitia euskaltzain ohorezkoa mintzo da bere maistratzako lehen pausoak adiaraziaz, eta euskal idazle zaletasunaren hasierak kontatuaz.

Madaleine Jauregiberry euskaltzain ohorezkoaren txostena. Gaztaroan bere buruari egiten zizkion galderaz, ia xuberozarrez herri euskaraz idazteko modurik zehatzenaren parte printzea, Intxausperen lanak eta euskararen alde mugitu zela euskararen alde.

Tene Mujikak euskaltzain ohorezkoak, bere euskal idazletasunaren lehen bidak eta bidak eta bidak markatu zizkion Don Lore...

*Euskaltzaindik inu emakume
eustoldun saritu gaitu, geure
bisan lan asko egin degulako
geure iskurtra maitate au
aldeetuzten.*

Ohorezko euskaltzain izendatu zutenean, Julenek Pragara idatzitako hitzak (N. Tauer-i gutuna, 1975-garagarria-15).

BEHATZAILE FINA

Idazle eta emakume, Julene Azpeitiak bere birtute nabarmenak idazgintza lanetan ipini zituen. Sotil behatu zituen pertsonak eta egoerak, txeratsu deskribatu eta xehetasunez marraztu. Taxuz mintzatu zitzaigun Mexikoko bizitzaz, hango ohitura eta historiaz, eguneroko bizimoduaz, herriarekiko sentsibilitate handia adierazi duten pertsona zolien antzera. Hala ere, hitz goxoenak, esaldi beroenak, bere herriarentzat gorde zituen, beti gorde ere: *baña ni euskalduna izanik, nere biotzak Euskalerritik urrun ez du illuna baño aurkitzen, ez du ituna besterik nabaitzen, negarra dario ordu*

guztietan, errimiñak narama alde guztietara, baña leku danetan: Urruti da mendia / Bere barrenean nere erria.

Balore hauek izan ziren, istorioak herritik jaso eta literarioki narratzera eramane zutenak. Juan San Martin-en hitzetan esateko, *Azpeitiar Julenerenak* (ipuinak) *erria zuzenki dute iturburutzat, ta bere eskuz eztiki apainduak dira.*

Haren ipuin ugari herri-tradiziotik hartuak direnez, ez dira guztiz berriak, baina aurkezteko orduan badira, izan, originalak. San Martin-ek idatzitako hitzaurrean zera irakur dezakegu: *Orregatik irakurle, emen arkituko dituzun askori (ipuini), lenago beste nunbait entzun edo irakurritakoen antza hartuko diozu... baña ez emengoak bezin txukun adierazirik. Aiek erria mintzatzen dan bezelaxe jasoak izanarren, apainduak dituzu, batez ere umeentzako eran. Eta hemen dugu, hain zuzen, Julene Azpeitiaren bizitzan aurki dezakegun ardatza: umeen irakaskuntza.*

Zituen erroen balioa (sorterria, familia, inguru soziala) oso gogoan zituen Julenek, baita euskararen etorkizuna segurtatzeko ere.

Julenaren (Gipuzkoar) jaiotza nire irakaslea; euskararen maitatasuna betikoa del nere biotzean. geroago ta aundiagoa. Lenengo euskeras, Mexicon n ida tu nuan. 1919g, an geunden us kaldunak. Seun Inaki egunean argitaratzen gendun Magazine ta tean. Gero, Bilbaoko eguneroko batean

ARDURA PEDAGOGIKOA

Julene Azpeitia gaztetandik dakusagu maistra lanetan, irakaskuntzaren munduan zeharo murgildurik. *Esan bear det baita ere, neri iñoiz galdetu didatenean: Aizu, berriz jaioko baziñake zer karrera artuko zenduke? Nik beti erantzun det: Maistren karrera. Milla bider jaioko banintzake ere.* Hitz hauekin amaitu zuen bere mintzaldia, Euskaltzaindiak Jauregiberri eta Mujikarekin batera omendu zuen egunean, Emakumearen Urtea deituriko 1975ean.



Abadinoko Auzo-Eskola honetan ere lan egin zuen Julenek (Matiena auzoan, 1922-1936), euskarari berea emanez.



Eskola publikoan lan-postua irabazteak eta hobetzeak dituzten egoitza-aldaketak ezagutu zituen Julene Azpeitiak ere, eta gerraondoko haizeek ere eraman zuten erbestera.

Azpeitiak ez zuen bokazioa erratu. Maistra izan nahi, eta maistra izan zen bitzta osoan, erakusteko eta irakasteko nahiak gehiago ikastera bultzatu zuelarik. Jakin-min bizia zuen, beti ere are gehiago jakitearren, eta eskuzabala zen, hartutakoa ematean. Haren jarrera pedagogikoa, ikasgelan ez-ezik handik kanpo ere agertu zen, gutun eta artikulugintzan bezala eguneroko ekintza arruntetan.

Idazten eta irakurtzen ez zekien emakume nagusiari egindako mesedea gogoratzean, maistra lanak eman zizkion pozak berrazaldu zituen behinola, gogotik azaldu ere: *Egun ura guztiz egun ona izan zan neretzat. Maistren karrera egindako damurik ez nuan orduantxe!! Ez orixe!! Egia esan, iñoiz ez det karrera au egindako damurik izan, eta bai poz aundiak, biotza bete-beteko pozak sarri askotan. Eta egun au izan zan bat.*

HAURRAK ETA EUSKARA

Irakasteko grina, batez ere umeekikoa agertu zuen Julenek, beti umeak eta hizkuntza helburu sendoena zituela. Nola ihardun, euskara iraun erazteko, eta berau umeengan biziberritzeko?: horixe zen haren funtsezko galdera. Eta erantzunak bilatzen saiatu zen. Ipuinak, kantak, irratsaioak eta Euskaltzaindiari egindako lau proposamenak, zuzen eta pragmatikoak, izan ziren erantzun haietariko batzuk: lehena, Bizkai eta Gipuzkoako udaletxeek antolatuta, haur euskaldunen arteko sariketa; bigarrena, irratitik esateko umeentzako ipuin politak gertatzea; hirugarrena, jaunartze egunean irratia bidez eskaintzen diren kantak euskaraz izatea, eta laugarren eta azkena, ezkontza egunean irratian zorionak emateko jartzen diren abestiak euskarazkoak izatea.

Ama Euskera ikastoletan sartu eziñ dugun bitartean, umeak ikastoletatik at irakurtzen eta idazten ikasten badute gure izkuntzak aurrerakuntza aundia egiño du. Erriak, euzkeraz itz egiten duan erri guztiak, euzkeraz irakurten eta idazten jakiñ bear du Euzkera biziko bada.

*Here irakaste dentora. Bi
haiko ikastoletan egun det, e. n. n.
70. guda aurretik, gero amaika
urte ikastola gabe, urte bete P. n.
kayko Gorkis'en Urte gaztegiak
ikastolan; sei urte P. n. n. n. n. n.
triki batean (an idate) nuan
Amandreaaren altxoan,) eta arke
neko ikastola Martiña'n isan
det. Orañ, burango'n bizi nua
neure renarrarekin.*

Hemen dakusagu, beraz, ipuingilea izatearen arrazoia. Modu zuzen eta gozoz, amandrearen altzoan baigeunde, beraren liburuetakako orri bakoitzean, kontu politikak eta ipuin alaiak murmuriatzen dituen Julene Azpeitiak, helburu bat du eduki: umeak zale daitezela, ama hizkuntza goza dezatela. *Azeri jauna* izeneko ipuin liburuari fabulen didaktismo handia nabari diezaiokegu, baina batez ere, irakurlearekiko ardura du begibistan, lerro guztietan isurian datorren ardura. Nork irakurriko duen, eta une bakoitzean zer pentsatuko duen du Azpeitiak gogoan, eta batez ere irakurle haurrarekin ari da beti, bere asmotan. Nola egin, gustora egon dadin? Nola mintza, uler dezan?



Zuentzat.
Donostia, (1974).



Amandriaren altzoan.
Zarautz, 1961.

BIZITZAREKIKO JARRERA DIDAKTIKOA

Didaktismoa ez zuen literaturgintzara mugatu. *Osasuna, merketza eta janaritza* izeneko sukalde-liburuan, beste gisa bateko gaiak eta ardurak azaldu zituen: *zer, zenbat, zelan, noiz yan bear dan*, galdetzen du idazleak. Sukalde-errezetak dira: *zukuak (sopak), okelak, brijiduak, arraňak, makalaua, arrautzak, gozo batzu, merketza (ekonomia)*. Aholkuen artean, jakiak non eta nola gorde behar diren irakur dezakegu, eta jakiak beren arotan erosi behar direla ere gogoratzen zaigu, erretserba eduki eta diru dena ez dela gastatu behar, hau da, "*sentido común*"eko aholkuak, bere hitzetan.

Hezkuntza klasikodun emakumea izanik, ez zuen arlo pertsonalean aurrekoekin hausturarik sortu. Tradizioa eta ohizko baloreak jaso eta bereganatu zituen, etena planteatu gabe. Argi eta garbi ikus dezakegu aipatu liburuan: *Etxeko gastuetan sartzen dan gizonak bere burua eratsi egiten dau. Gizonen bearra etxea ez dalako, baña andre buru argidunak ez dau eginkizun au bete barik itxiko.*

KULTUR EMAKUMEA

1888an jaioa, eta emakumearen paperaz ideia tradizionalak zituen arren, Azpeitiak garaiko kultur munduan aktiboki hartu zuen parte. Literatur sariketetara aurkeztu eta sariak bereganatu zituen, hainbat aldizkaritan argitaratu zituen bere artikuluak, irratsaio ugari egin zuen, eta kultur munduko pertsonaia publikoekin ere izan zituen harremanak. Julene paper tradizionala gainditzera eramango duen arrazoia, zalantza barik, euskararekiko ardura dugu.

1925ean eskuratu zuen bere lehen saria, Bizkaiko Diputazioak pedagogi gaiz eraturako lehiaketan, *Irakurri matte* lanarekin. 1933an, Kirikiño Saria izan zen, "Euli baten edestia" ipuinarekin, eskuratu zuena. Berehala, *Osasuna, merketza eta janaritza* argitaratzea lortu zuen, 1920an Euskaltzaindiak saritutakoa. 1954ean, eta berriz Euskaltzaindiaren Kirikiño Sarietan, bigarren gelditzea lortu zuen, Felix Bilbaoren ostean, "Amandriaren altzoan" liburuarekin. Azkenik, 1959an, Miarritzeko "Kulturaren Alde" elkarteak antolatutako Sarietan, "Goizeko izarra" ipuinarekin jaso zuen sari bat.

Eskauriata'ren Azpeitia'ra Julene

Hau da Julene-k idatzi ohi zuen sinadura, osorik, senarraren aipua ela guzti.

Literatur lanez gain, irratiak hartu zion denbora handia. Urtetan aritu zen astero ordu-erdiz irratigintzan, eta 74 urte zituela ere, oraindik bidaltzen zituen bere lanak Arrate eta Loiola irratietara.

Aldizkarigintzan ere, ehundaka artikulu zuen argitaraturik, "Arritokieta" ezizenarekin "Euzkadi" egunkarian, "Karmel", "Yakintza", "Egan" eta "Zeruko Argia" aldizkarietan. Liburugintzan bereari azkeneraino eutsi zion: 1975ean, ordurako 87 urte eta ikusmen txarra zituela, bere azken liburua editoreari emateko adorarik ere erakutsi zuen.

Honetaz mintzatzen zaigu, hain zuzen, Norbert Tauer-ekin gutunen bidez izan zuen elkarrizketa luzean. *Nere ustez, euskerak bultzakada aundi bat artu du aurrerantz, urte abetan eta Goiko Jaunak egingo al digu onelaxe jarraitzeko eskerra. Erri bakoitzean, zu bezelako maitaleak ba'leuska gure euskera maite onek...!*, ziotsan pragatarrari 1962an.



Julene Azpeitiaren lehenengo liburua: 1920an Euskaltzaindiak saritua.

ZUZEN ETA ZEHATZA

Estilo zuzen eta arina, hiztegi zehatza eta egitura sinplea erabiliz, ardura handia erakutsi zuen Azpeitiak hizkuntzarekiko. Gipuzkera zein bizkaiera erabili zituen, bizi zen lekuetako umeen hizkerari moldatu nahiz. Eta hizkuntzaren batasun-bidea urratu zenetik, berak ere batuaren antza eman zien bere idaztiei, arau guztiak bete-betean jarraitu ez arren. Ortografia da izan, agian, gutxien aldatu zuena, baina baturantzako joera betidanik somatzen diogu bere testuetan, horixe bait zuen ulergarriago suertatzeko bidea.



Ipuinak bezala haren esaldiak, ezagutuak, laburtuak, moldatuak eta zehaztuak dira, eta zalantzarik sortu kasurako, hiztegi labur eta argigarri bat eskaini ohi zuen atzekaldean.

Zenbait liburutan, janaritzaz idatzi zuenean batez ere, "lursagarra" eta "esne-koipea" moduko berbak topa baditzakegu ere, eta garaiko joerak horretara bultzatu arren, ezin genezake esan garbizalekeriatan desbideratu zenik. Korronteetatik at ibili zela esan liteke, planteamendu teorikoei baino arrazoi pragmatikoei jarraikiz. Erabiltzen zuen hiztegia, halere, hiztegi herrikoi eta aberatsa dugu, eta batez ere erreala; fikzioan dihardunetan ere, errealtasun kutsua dario haren literaturgintzari, eta sinesgarritasunarekiko ardura eta, batez ere, irakurlearekiko komunikazioa. Komunikazio hori eten ez zedin arreta nabaria erakutsi zuen bere lanetan.

11

Irakurri, matte. Bilbo, 1932.


APALTASUNAREN BALIO LITERARIOA

Erraza eta mediokrea parekatu nahi dituztenen aurrean, Julene Azpeitiaren lanak erraztasuna kalitatearekin uztar daitekeela erakusten digu. Helburua aurretik finkaturik eta zehazturik edukitzeak laguntzen dio sinpletasun itxura ematen. Helburua zein den esana dugu aitzinean, euskararen zuzpertzeta, eta hizkuntzaren etorkizuna eraikitzea, eta hori hain zuzen gerokoan mintzatuko diren hitzunen bidez: haurrak irabaziz alegia. Xede hauen betetzeak sinpletasuna eskatzen du, eta horixe dugu Azpeitiak eskaintzen duena, lan literario apala, eroso.

Arau hutsal eta mito funskabeak dituen literatur munduak aise berdin litzake lan erraza eta txarra, iluna eta kalitatekoa. Idazle askok erakutsirik digute zein zaila den obra handiak erraztasun itxuraz ematea, eta

alderantziz: zailtasunak ez dakarrela berez ezeren kalitaterik. Apaltasuna balio literariotzat harturik, Azpeitiaren ipuin-sortak, bidal artikulua-multzoak eta kontakizun atseginek, berezko lekua dute euskal literaturaren historian.

Euskal literaturak gizartetik azagoko bideak ibiltzen zituen garaietan, hau da, egunerokotasunari heldu ezinik zebilenean, idazle honen lanak egunez eguneko beharrizanei atxekirik ageri zaizkigu, errealitatearen arazoekin zeharo uztarturik, hizkuntza eta hezkuntza, etorkizuna eta irakaskuntza elkartzuz. Horixe dugu, apika, apaltasunarekin batera, Azpeitiaren lorpen handienetarikoa: tokian tokiko arazoei erantzuna emateko ahalmen hori, ekintzen bidez zein literatura erabiliz, eta literaturaren berezko eskakizunak ahortzi barik lan eginez, noski.



Euskal Irratiak sortu zirenean, Julene prest agertu zen komunikabide berrien lankide izateko. (N. Tauer-i gutuna, 1962-maiatza-31).